



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko otsailaren 15a

18. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Iruñeko Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Iruñeko Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Iruñeko Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Iruñeko Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

Laburpen exekutiboa (4. or).

I. Sarrera (5. or).

II. Iritzia (8. or).

II.1. Udalaren 2016ko kontu orokorrari buruzko finantza-iritzia (9 or).

II.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (9. or).

III. Finantza egoera bateratuak (10. or).

III.1. 2016ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazioaren egoera-orria (10. or).

III.2. 2016 ekitaldiko aurrekontu bateratuaren emaitza (11. or).

III.3. Diruzaintzako gerakin bateratuaren egoera-orria 2016ko abenduaren 31n (11. or).

III.4. 2016ko abenduaren 31ko egoeraren balantze bateratua (12. or).

IV. Ondorioak eta gomendioak (13. or).

IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzario bateratua 2016-12-31n (13. or).

IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (15. or).

IV.3. Aurreko ekitaldietako gomendioen betetzea (16. or).

IV.4. Alderdi orokorrak (17. or).

IV.5. Barne-kontrola (18. or).

IV.6. Udaleko langile-gastuak (18. or).

IV.7. Udalaren ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak (22. or).

IV.8. Inbertsioak (25. or).

IV.9. Transferentzia-gastuak (27. or).

IV.10. Tributuak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk (29. or).

IV.11. Transferentzien bidezko eta ondarearen bidezko diru-sarrerak (30. or).

IV.12. Inbertsio errealen besterentzea (32. or).

IV.13. Abenduaren 31n ebazteko dauden errekurtsio judizialak (32. or).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (33. or).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (34. or).

Eranskina: Iruñeko Udalaren urteko kontu bateratuen oroitidazkia, 2016ko abenduaren 31ri dagokiona.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

LABURPEN EXEKUTIBOA

Iruñeko Udalaren 2016ko ekitaldiko kontuei eta kudeaketa finantzarioari buruz Kontuen Gambera honek egindako azterketaren laburpen gisa, honako alderdi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Finantzen egoera-orriek, oro har, eragiketen osotasuna islatzen dute, aplikatzekoak diren kontabilitate- eta aurrekontu-printzipioei jarraituz.
- Udalaren finantza-egoera, gure ustez, egonkorra eta saneatua da, haren adierazle ekonomiko eta finantzario nagusiek agertzen duten bezala.
- Egiaztatu dugu Udalak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak betetzen dituela.
- Uste dugu deseatzekoa litzatekeela Udalaren barne kontrolaren sistema indartzea, bereziki langileen arloari dagokionez, bai eta Udalaren eta erakunde autonomoen kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola egitea ere.
- Kontratazio-prozedurak, oro har, zuzenak badira ere, gure ustez beharrezkoa da Udalak zerbitzuen plangintza hobetu dezan, horrela saihesteko, besteak beste, zerbitzuen prestazioak jarrai dezala behin aurreko kontratuen indarraldia amaituta. Halaber, espedienteen kudeaketa hobetu behar dela nabarmendu beharra dago, kontratazio publikoaren esparruan exigitzen diren baldintza eta formaltasunak betetzeko.
- Balorazio-ponentzia gaurkotu egin behar da.
- Egitate garrantzitsu gisa, atzeman dugu aldaketa bat egon dela zerbitzu jakin batzuen kudeaketa-modalitatean, eta horrek eragina izanen du etorkizuneko ekitaldietan, batez ere Udaleko eta Haur Eskolak erakunde autonomoko langile-kopuruaren igoera ekarri duelako.

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2017rako jarduketa-programari jarraituz, Iruñeko Udalaren 2016ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du. Honako hauek osatuta dago kontu hori: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.

Kontu Orokorren finantza-auditoriarekin batera, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2016ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Udalari 2016ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko araudia ere.

Halaber, nabarmendu behar dugu 2016ko aurrekontua aurkezten dela Nafarroako Gobernuak irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsi zuen toki entitateen aurrekontu-egitura berriari jarraituz.

Iruña udalerrri bat da, 2016ko urtarrilaren 1ean zuzenbideko 195.650 biztanle zituen eta 25,1 Km²-ko azalera duena.

Udal antolamendua, besteak beste, honako organoek osatzen dute: Osoko Bilkura, zeina ordezkari politikoaren organo gorena baita, Tokiko Gobernu Batzarra eta Alkatetza.

Udalaren egitura administratiboa zortzi alorrek osatzen dute 2016an; horietatik bi bina unitate organikotan banatuta daude. Alor horiek une hauetan hamar zuzendarik eta hamar idazkari tekniko zuzentzen dituzte.

Udalak honako ente hauek dauzka zerbitzu publikoak kudeatzeko:

- Erakunde autonomoak:

a) Udalaren haur eskolak, haur eskolen zerbitzuaren kudeaketarako.

b) Hirigintzaren Udal Gerentzia, Iruñeko udalerrriaren hirigintzaren kudeaketarako.

- Merkataritza-sozietateak: Udalak partaidetzaren gehiengoa dauka honako merkataritza-sozietate hauetan:

Enpresa	Partaidetzaren portzentajea	Xede soziala
Comiruña SA	100	Txikizkako merkatuak
Pamplona Centro Histórico SA	100	Hirigune historikoaren hirigintza
Asimec SA (1)	100	Etxez etxeko laguntza
Animsa	77,69	Udal informatika.
Mercairuña SA	51	Handizkako merkatuak


(1) Aurreikusita dago Asimec SA sozietate publikoa 2017an desegin eta likidatuko dela, Osoko Bilkurak 2016ko abenduaren 30ean hartutako erabakiaren ondorioz. Erabaki horren bidez, etxez etxeko laguntza zerbitzua zuzenean kudeatzea onetsi zen.

- Gayarre Antzokiaren Fundazioa, Gayarre antzokia kudeatzeko eta administratzeko.

Gainera, Erruki Etxearen Fundazioa, hirugarren adinekoei laguntza ematen diharduena, Iruñeko Udalari lotuta dago orain dela 300 urte baino gehiago, baina, Ganbera honen ustez, fundazio pribatu bat da.

6

Iruñeko Udalaren eta haren menpeko enteen egungo egitura –ente horien artean Erruki Etxearen Fundazioa sartu dugu– honako organigrama honetan jasotakoa da:



Udalaren eta haren menpeko enteen datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak honako hauek dira 2016ko ekitaldiaren itxieran:

- Administrazioaren Sektore Publikoa:

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2016ko abenduaren 31n
Udala	202.047.563	188.277.837	1.483*
Hirigintza Gerentzia	9.422.666	9.789.071	25
Haur eskolak	8.464.390	8.296.050	232
-Bateratzearen doitzeak	-10.121.175	-10.121.175	
Guztira	209.813.444	196.241.783	

(*) 156 pertsona gizarte enplegu babestuan daude

2016an, Udalak 3.815.368 euroko ekarpena egin zien haur-eskolei, eta 6.300.148 euroko ekarpena, berriz, Hirigintza Gerentziari.

- Merkataritza-sozietateak:

Enpresak	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatuen batez besteko kopurua
Comiruña SA	499.310	422.180	77.130	6,08
Mercairuña SA	1.283.572	1.097.215	186.357	13
ANIMSA	6.690.630	6.779.922	-89.292	101,07
Pamplona Centro Histórico SA	1.984.390	2.186.537	-202.147	4
Asimec SA	2.080.146	2.095.434	-15.288	73,82

- Fundazioa:

Fundazioa	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatuen batez besteko kopurua
Gayarre Antzokia	1.868.068	1.901.483	-33.415	16

Horretaz gainera, Erruki Etxeak honako datu ekonomikoak dauzka:

	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Enplegatuen batez besteko kopurua
Erruki Etxea	19.780.519	17.748.450	2.032.069	277

Udala Iruñerriko Mankomunitateko kidea da, eta haren bidez kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak (ur-hornidura eta behe presioko saneamendua), hiri-hondakin solidoen tratamenduko zerbitzuak eta hiri-garraioko zerbitzuak (autobusa eta taxia).

2016an Udalak aurrekontuak onetsi zituen, 2011ko ekitalditik 2015eko ekitaldira aurrekontu luzatuekin egon ondoren.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarrean, gure iritzi finantzariora eta legezotasunaren betetzeari buruzkoa azaltzen dugu, Iruñeko Udalaren 2016ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak direla eta. Kontu horien laburpena hirugarren atalean ematen dugu. Lau garren atalean, honako gai hauei buruz lortutako ondorio eta gomendio batzuk ematen ditugu: Udalaren aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko printzipioen betetzea, aurreko txostenetako gomendioen jarraipena eta kudeaketa-alor garrantzitsuenak.

Fiskalizazio-txostenarekin batera 2016ko ekitaldiko urteko kontu bateratuen oroitidazkia, Udalak egindakoa, erantsi dugu.

Azterketa lana auditoriako bost teknikarik eta auditore batek osatutako lantaldeak egin du, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin, 2017ko abuztuan hasi eta urrira bitarte.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko, haren erakunde autonomoetako, enpresa publikoetako eta fundazioko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. IRITZIA

Iruñeko Udalaren 2016ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Ogasun Alorreko Zuzendaritza da Kontu Orokorra egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dagoen Kontu Orokorra egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udaleko Osoko Bilkurak 2017ko irailaren 7an onetsi zuen Kontu Orokorra.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, Udalak bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolako sistemak ezarri beharko ditu.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezotasunari buruz. Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolako erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta Kontu Orokorraren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure iritzia funtsatzeko.

II.1. UDALAREN 2016ko KONTU OROKORRARI BURUZKO FINANTZA-IRITZIA

IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

- Oroitidazkian informatzen dena ezertan kendu gabe, balantzean ez da erregistratu udal montepioari atxikitako funtzionarioen pentsioei buruzko etorkizuneko betebeharren hornidura. Udalak 2009an azterlan aktuarial bat egin zuen pentsio horiei buruz, eta urtean 22,1 milioiko batez bestekoa kalkulatu zuen 2016tik 2019ra doan aldirako.

IRITZIA

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" paragrafoan azaldutako egitateen eraginetatik ez bada, erantsitako Kontu Orokorrak irudi leiala erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2016ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez; halaber, irudi leiala erakusten du data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRTITZIA

IRITZIA

Gure iritiz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

III. FINANTZA EGOERA BATERATUAK**III.1. 2016ko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA**
(Udala eta erakunde autonomoak)

Gastu-aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guztizkoaren gainean (%)
Langile-gastuak	1	86.128.850	0	86.128.850	84.614.960	84.363.063	251.897	98	43
Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	2	74.908.473	-874.800	74.033.673	67.688.796	56.057.492	11.631.305	91	34
Finantza-gastuak	3	3.000.000	85.000	3.085.000	1.511.178	1.258.513	252.665	49	1
Transferentzia arruntak	4	13.308.396	105.700	13.414.096	12.854.628	11.743.363	1.111.265	96	7
Kontingentzia funtsa	5	50.000	0	50.000	0	0	0	0	0
Inbertsio errealak	6	18.219.015	12.524.587	30.743.602	20.522.424	10.141.322	10.381.102	67	10
Kapital-transferentziak	7	2.280.000	6.000	2.286.000	1.036.015	775.293	260.722	45	1
Finantza-aktiboak	8	1.467.200	0	1.467.200	215.559	215.559	0	15	0
Finantza-pasiboak	9	7.822.500	0	7.822.500	7.798.224	7.072.152	726.072	100	4
Gastuak, guztira		207.184.434	11.846.487	219.030.921	196.241.785	171.626.757	24.615.028	90	100

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak	Kobrartzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guztizkoaren gainean (%)
Zuzeneko zergak	1	51.425.500	0	51.425.500	55.770.898	52.089.992	3.680.906	108	27
Zeharkako zergak	2	5.450.000	0	5.450.000	8.046.537	7.149.751	896.787	148	4
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3	29.598.250	0	29.598.250	31.110.632	27.862.912	3.247.721	105	15
Transferentzia arruntak	4	97.631.171	0	97.631.171	97.523.726	95.260.986	2.262.740	100	46
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	2.743.500	0	2.743.500	2.864.320	2.217.481	646.839	104	1
Inbertsio errealen besterentzea	6	6.869.300	0	6.869.300	6.817.427	6.817.427	0	99	3
Kapital-transferentziak	7	6.398.331	45.888	6.444.218	7.517.142	7.318.466	198.676	117	4
Finantza-aktiboak	8	1.467.200	11.800.599	13.267.799	162.763	45.805	116.957	1	0
Finantza-pasiboak	9	5.601.182	0	5.601.182	0	0	0	0	0
Diru-sarrerak, guztira		207.184.434	11.846.487	219.030.921	209.813.444	198.762.821	11.050.623	96	100

III.2. 2016 EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA (Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2015	2016
Aitortutako eskubide garbiak	200.491.113	209.813.444
Aitortutako betebeharrak garbiak	-193.286.441	-196.241.785
Aurrekontu-emaiza	7.204.672	13.571.659
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	-5.382.828	-5.453.428
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	4.031.915	3.729.575
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak	7.291.599	8.609.767
Aurrekontu-emaiza doitua	13.145.358	20.457.573

III.3. DIRUZAINZAKO GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA 2016ko ABENDUAREN 31n (Udala eta erakunde autonomoak)

Kontzeptua	2015	2016	Aldearen ehunekoa
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	32.045.591	27.292.844	-15
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	14.845.926	11.088.007	
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	34.309.147	32.992.877	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	146.883	126.806	
(+) Ordainketen itzulketak	123	123	
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-16.777.196	-16.875.126	
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-479.292	-39.843	
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-27.787.870	-37.345.193	34
(-) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	-13.477.426	-24.615.028	
(-) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	-7.204.548	-5.067.953	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	-6.973.366	-7.519.244	
(-) Egiteke dauden itzulketak	-147.423	-149.393	
(+) Aplikatzeko dauden ordainketak	14.894	6.425	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	28.962.727	54.049.781	87
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	21.249.243	21.249.244	0
Diruzaintzako gerakina, guztira	54.469.691	65.246.676	20
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	18.581.206	17.909.505	-4
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina	22.479.139	23.358.812	4
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	13.409.346	23.978.358	79

III.4. 2016KO ABENDUAREN 31KO EGOERAREN BALANTZE BATERATUA
(Udala, erakunde autonomoak eta Comiruña SA, Pamplona Centro Histórico SA eta Asistencia Municipal en Casa SA udal enpresak)

Deskribapena	2016ko itxierako zenbatekoa	Deskribapena	2016ko itxierako zenbatekoa
A IBILGETUA	1.215.623.841	A FUNTS BEREKIAK	1.205.717.061
1 Ibilgetu materiala	534.787.415	1 Ondarea eta erreserbak	764.477.764
2 Ibilgetu ez-materiala	22.532.053	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	21.775.776
3 Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunak	653.787.188	3 Kapitaleko diru-laguntzak	419.463.521
4 Herri-ondasunak	0	B ARRISKUETARAKO ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	0
5 Finantza-ibilgetua	9.001.719	4 Hornidurak	0
- Ibilgetuaren amortizazioa	-4.484.534		
B HAINBAT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK	0	C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	84.365.713
6 Kitatu beharreko gastuak		4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	84.365.713
C ZIRKULATZAILEA	114.501.231	D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	40.042.299
7 Izakinak	13.683.846	5 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	40.002.524
8 Zordunak	45.259.056	6 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	39.775
9 Finantza-kontuak	55.597.057		
10 Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak. Aplikatzeko.	6.272		
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)			
Aktiboa, guztira	1.330.125.072	Pasiboa, guztira	1.330.125.072

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, azterketa bat egiten dugu Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruz eta aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipenari buruz; gainera, atal honetako azken idatz-zatian, Ganberaren iritziz, Udalak kudeaketa-alor garrantzitsuetan, antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetze aldera, aintzat hartu beharko lituzkeen ondorio eta gomendio nagusiak ematen ditugu.

IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANZARIO BATERATUA 2016-12-31n

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2016rako hasierako aurrekontu bateratuak 207,18 milioi euroko diru-sarrerak eta gastuak biltzen zituen hasierako aurreikuspenetan, hurrenez hurren.

Gastuetan eta diru-sarreretan goranzko aurrekontu-aldaketa batzuk eginda, 11,84 milioi eurokoak –hasierako kredituen ehuneko sei egiten dute–, behin betiko gastu eta diru-sarrera bateratuek 219,03 milioi euro egiten dute.

2016an, gastuak 196,24 milioi eurokoak izan ziren, ehuneko 90eko betetze-mailarekin eta ehuneko 87ko ordainketa-mailarekin. 2015ekoak baino ehuneko 1,53 handiagoak izan ziren.

Diru-sarrerei dagokienez, 2016an 209,81 milioi euroko eskubideak aitortu ziren, ehuneko 96ko eta 95eko betetze- eta kobrantza-mailekin. Kasu horretan, 2015ekoekiko igoera ehuneko 4,65ekoa izan da.

Laburbilduz, Udalak 2016an gastatutako 100 euro bakoitza honela erabili eta finantzatu dira:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantza iturria	Ehunekoa
Langileak	43	Tributu bidezko diru-sarrerak	42
Bestelako gastu arruntak	42	Transferentziak	50
Inbertsio errealak	10	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	8
Kapital-transferentziak	1		
Finantza-pasiboak eta -aktiboak	4		

Aurreko datuetatik, nabarmentzekoak dira langileen gastua eta bestelako gastu arruntak, ehuneko 43ko eta 42ko ehunekoekin hurrenez hurren, bai eta transferentzien bidezko diru-sarrerak ere, zeinek guztizkoaren ehuneko 50 egiten baitute; ondotik zergen bidezko diru-sarrerak datoz, ehuneko 42rekin. 2016ko ekitaldian ez da zorpetzera jo.

Ondoren, 2016ko ekitaldiko betetze bateratuari buruzko adierazle batzuk ematen ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

	2015	2016	Aldea (%) 2016/2015
Diru-sarrerak, guztira	200.491.113	209.813.444	5
Gastuak, guztira	193.286.441	196.241.785	2
Diru-sarrera arruntak	187.939.648	195.316.113	4
Funtzionamendu gastuak	161.956.561	165.158.385	2
Aurrezki gordina	25.981.468	30.157.728	16
Finantza-zama	11.408.653	9.309.403	-18
Aurrezki garbia	14.572.815	20.848.325	43
Kapitaleko diru-sarrerak	11.659.200	14.334.569	23
Kapitaleko gastuak	19.033.921	21.558.438	13
Aurrekontu-emaizta doituak	13.145.358	20.457.573	56
Finantza-zamaren adierazlea*	% 6,07	% 4,77	-21
Aurrezki gordinak diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehuneko*	% 13,83	% 15,44	12
Zorpetze-ahalmena (%)	% 7,75	% 10,67	38
Zorra, guztira	93.926.655	86.053.529	-8
Biztanle bakoitzeko zorra	480	440	-8
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	13.409.346	23.978.358	79

* Ratioen izendapen berriak, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak sartutakoak.

2016an, Udalak eta bere erakunde autonomoek aitortutako eskubide guztien ehuneko 93 diru-sarrera arruntak dira; ehuneko zazpi kapitaleko diru-sarrerak dira, eta gainerako ehuneko 0,1a, berriz, finantza-aktiboaren bidezko diru-sarrerari dagokie.

Udalak eta haren erakunde autonomoek, funtzionamendu-gastuak eta finantza-zama diru-sarrera arrunten bidez finantzatu ondoren, 20,84 milioi euroko aurrezki garbia lortu zuten; 2015ean baino ehuneko 43 gutxiago.

Ikusi dugu, 2012-2015 aldian ez bezala, inbertsioaren erritmoa handitu egin dela, eta 2015ean 19 milioikoa izatetik 2016an 22 milioikoa izatera pasa dela.

2016an, zorpetze-ahalmen bateratua ehuneko 10,67koa zen eta guztizko zorra 86 milioi eurokoa zen; horrek, izan ere, diru-sarrera arrunten ehuneko 44 egiten zuen.

2016an, nabarmentzekoa da zorrak ehuneko zortzi -7,87 milioi euro- egin duela behera, aurreko urtekoarekiko, 2015eko ekitaldian zorra gutxitzeko izan zen joerari jarraituz -ehuneko zortzi jaitzi zen 2014koarekiko-.

Arriskuen kalifikaziorako agentzia batek BBB kalifikazioa eman zuen 2016ko irailean Udalaren eta haren erakunde autonomoen epe luzeko zorrerako; horrek adierazten du gaitasun egokia duela interesak ordaintzeko eta printzipala itzultzeko. 2017ko irailean kalifikazio horri eutsi egin zaio.

Aurrekontu-emaiztan ikusten den aldaketa positiboa heldu da, nagusiki, honako hauetatik: hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren handitzea, 2,9 milioi igo baita; eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren handitzea, 3,02 milioi igo baita, eta lursailak besterentzeko eragiketak, zeinek 1,9 milioi euro egin baitute.

Bestetik, nabarmentzekoa da 2016ko ekitaldiaren itxieran gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 23,98 milioi eurokoa izan zela, ehuneko 79 handiagoa; horrek erakusten du finantza-egoera saneatu bat badagoela, zeinak etorkizuneko ekitaldietako jarduketak finantzatzea ahalbidetzen baitu. Gerakinaren barruan erabili ezin daitekeen zenbateko bat badago, 20,15 milioi eurokoa, desbideratze metatu negatiboaren kontzeptuan; horren arrazoia da Udalaren eta Hirigin-tzako Gerentziaren arteko salerosketa-eragiketa bat, 2009ko ekitaldian egina.

IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, SEC'10 Kontabilitate Nazionalen irizpideak jarraituta, honako enteak jotzen dira tokiko administrazio publikotzat: Udala bera, erakunde autonomoak (Hirigintzako Gerentzia eta Haur Eskolak), merkatukoak ez diren udal sozietateak¹ (Pamplona Centro Histórico SA, Asimec SA eta Animsa SA) eta Teatro Gayarre Fundazioa.

Administrazio publikotzat jotzen diren entitateek, 2016ko ekitaldian, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak bete dituzte.

- 20,01 milioi euroko finantzaketa-ahalmena sortu dute.
- 2016ko ekitaldiko gastu zenbakarria 5,68 milioi euro txikiagoa da gastuaren gehieneko muga baino; horrekin, gastu-araua betetzen da, ez baita 2016rako baimendutako ehuneko 1,8ko aldaketa-tasa gainditzen.
- Zorpetzeak diru-sarrera arrunten ehuneko 43,1 egiten du, ezarritako ehuneko 110eko mugatik behera; hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazleari dagokionez, berriz, lehenengo bi hiruhilekoek balio negatiboak² daukate; hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan, berriz, balio positiboak daude, baina desbideratze positiboak ez dira aipagarriak.

Ondoren, finantzaketa-gaitasunari eta gastu-tarteari buruzko kalkulua erakusten dugu, bai eta batez besteko aldia dela-eta izan diren balioak ere:

Finantzaketa-ahalmena

	2016
Diru-sarrera ez-finantzarioak	232.723.796
Gastu ez-finantzarioak	-211.693.962
Saldo ez-finantzarioa	21.029.834
SEC dela-eta egindako doikuntzak	-1.014.841
Itxitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapituluetakoko diru-sarreraren kobrantzak	-1.168.949
Europar Batasunaren diru-laguntzak	-2.294.557
Transferentzien bateratzea	-110.956
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketak	-47.677
Geroratutako ordainketa	715.000
Kontabilitate-sortzapeneko aldeak	1.892.298
Finantzaketa-ahalmena	20.014.993

¹ Jotzen da ente bat merkatuko dela haren produkzioa ekonomikoki aipagarriak diren preziotan saltzen bada eta salmentek gutxienez ere produkzio-kostuen ehuneko 50 estaltzen badute.

² Parentesi artean agertzen den datua zenbateko negatiboari buruzkoa denean, erakusten du batez beste arintasun handiagoa dagoela Administrazioak ordaintzeko garaian, legez faktura bati adostasuna emateko oro har ezarritako gehieneko epeari begira, edo, bestela, Administrazioak ordaintzeko zeuzkan eragiketak, batez beste, gehieneko epe horren aurretiko une batean daudela.

Oroitidazkian aipatzen den bezala, Asimec sozietate publikoak dauzkan finantzaketa-beharrek ez dute neurri finantzario gehigarri eskatzen, zeren eta 2017an sozietate horren desegitea eta likidazioa hasi baita, etxez etxeko laguntza zerbitzua kudeatzeko eredia aldatzearen ondorioz.

Gastuaren araua

2015eko gastu zenbakarri bateratua	160.918.331
% 1,8ko igoera	2.896.530
Diru-sarreraren igoeraren aurreikuspena	1.505.199
2016rako aurreikusitako gastuaren muga	165.320.060
2016ko gastu zenbakarri bateratua	159.639.488
Gasturako tartea 2016an	5.680.572

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	
Lehenengo hiruhilekoa	-6,55
Bigarren hiruhilekoa	-3,70
Hirugarren hiruhilekoa	7,03
Laugarren hiruhilekoa	0,10

IV.3. AURREKO EKITALDIETAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Egiaztatu dugu aurreko fiskalizazioetan egindako hurrengo gomendioak bete egiten direla:

- *Animsa enpresak Udalari ematen dizkion informatika-zerbitzuei aplikatu egin zaio Kontratu Publikoari buruzko Foru Legeko 8. artikuluan bitarteko berekitzat jotako tresna-izaerako enteentzako enkarguetarako ezarritako araubide juridikoa.*

- *Gastuen 2. kapituluaren erregistratu egin dira Animsak Udalari emandako zerbitzuak; eta 6. kapituluaren berriz, haietatik eratorritako inbertsioak, aurreko puntuan aipatutako enkarguen-araubidearekin koherenteak izateko.*

Lehentasunezkatzat jotzen dugu 2015eko ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako fiskalizazio-txostenean emandako gomendio hauek betetzea:

- *Balorazio-ponentzia berraztertze prozesua amaitzea, besteak beste, azken hirigintza-garapenak egin diren aldeetako lur-eremuen landa-lur gisako kalifikazioa aldatzeko, bai eta planeamenduan egindako beste aldaketa batzuk jasotzeko ere.*

- *Kontu-hartzailetzaren barne kontrola areagotzea, kudeaketa ekonomikoa hobetzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa den tresna baten gisara, eta hura ezartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritako hedadurarekin. Hau da, erabateko fiskalizazioa egitea aurrez fiskalizazio mugatua egin zaien eta udalaren diru-sarreraren barne-kontrola pasa duten gastuen lagin bati buruz, eta Udalaren kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola egitea.*

- *Kontu-hartzailetzaren eta Langileen Alorraren arteko koordinazioa eta komunikazioa hobetzea, nominaren alde aurretiko fiskalizazioa bidezko egiten duten egokitzapenak egiteko.*

IV.4. ALDERDI OROKORRAK

Entitatearen aurrekontua eta exekuzio-oinarriak behin betiko onetsi ziren, eta indarrean sartu ziren 2016ko otsailaren 23an NAOn argitaratu ondoren.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2016ko aurrekontuen likidazioa Alkatetzaren 2017ko maiatzaren 8ko ebazpen batez onetsi zen.

Kontu Orokorra 2017ko irailaren 7an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

2016ko kontuei dagokienez, Haur Eskolak eta Hirigintzako Gerentzia erakunde autonomoen kontuak, Gayarre Antzokiaren kontuak, eta Udalak partaidetzaren gehiengoa duen enpresa publikoen kontuak –Comiruña SA, Pamplona Centro Histórico SA, Asimec SA, Animsa eta Mercairuña SA– kanpoko profesionalak auditatu dituzte, eta kasu guztietan aldeko iritzia eman dute, Haur Eskolak erakundearen eta Asimec SAREN kasuetan izan ezik, eta horietan ere aldeko iritzia eman da baina legezketasunaren arloko salbuespen batekin.

Egin den azterketatik, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Haur Eskolak eta Asimec erakundeei dagokien salbuespenaren oinarria luzapenetan oinarritutako zerbitzu jakin batzuen prestazioarengatik ordainketa da; izan ere, horietan kontratuaren esparruan onartutako gehieneko indarraldi-epeak gainditu dira. Egoera hori 2012ko ekitaldik dago. Haur Eskolak erakundearen kasuan, 2017an mantentze-kontratu berria lizitatu eta esleitu da, eta lizitatzeko dago elikadura-zerbitzu jakin batzuei dagokien espedientea. Asimec sozietate publikoaren kasuan, desegiteko eta likidatzeko prozesuan dago, etxex etxeko laguntza zerbitzua kudeatzeko moduan egin den aldaketaren ondorioz.

- Indarrean jarraitzen dute, Hirigintzako Gerentziari dagokionez, kanpoko auditoreen txosteneko gomendioek, ekitaldiaren itxieran likidazioa eta behin betiko kontabilitate-itxiera egiteko duten poligonoei buruzkoek –diruzaintzako gerakinean ageri dira–.

- Udalak, Osoko Bilkuraren 2016ko abenduaren 30eko erabakiaren bitartez, etxex etxeko laguntza zerbitzuaren zuzeneko kudeaketa onetsi zuen, toki esparruari dagokionez zerbitzu publikoak kudeatzeko modu gisa³. Erabaki hori aginduzkoak diren txosten tekniko, ekonomiko eta juridikoetan oinarrituta hartu da.

Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago erabaki hartzeko oinarri gisa hartu diren txostenek erakusten dutela aurreikuspen batzuk zenbatespenetan oinarrituta daudela; hori dela eta, Udalak behin betiko lan-kostuak direla-eta aipatutako zalantzak ebatzi beharko ditu.

Kudeaketa modu horrek berekin dakar 2017an batera biltzea lehenago Asimec sozietate publikoak eta 2013ko ekitalditik zerbitzu horren esleipen-hartzaile izan den enpresa pribatuak kudeatutako zerbitzua. Horretarako, aipatutako enpresetako langileen zati handi bat subrogatuko dira; subrogazio hori 2017ko martxoaren 1etik dago indarrean.

Enpresa publikoari dagokionez, hartutako erabakiak berekin dakar hura automatikoki desegin eta likidatzea; merkataritza alorreko prozesu hori oraindik egiteko dago txosten hau idazteko egunean.

2017ko ekitaldiko plantilla organikoak islatzen du zerbitzua aldi baterako emateko lan-kontratudun mugagabe ez-finko gisa subrogatzen diren langileak sartzeak nolako gehiketa suposatzen duen. Lanpostu berri horien behin betiko estaltzea merezimenduan eta gaitasunean oinarritutako hautapen prozesu egokiaren bitartez egin beharra dago, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritako moduan.

- Haur Eskolak erakunde autonomikoaren Gobernu Batzarrak 2016ko abenduaren 12an onetsi zuen sei ikastetxeko jantoki-zerbitzua eta hiruren garbiketa zuzenean kudeatzea. Erabaki horrek berekin ekarri du, etxex etxeko laguntza zerbitzurako erabaki denaren antzeko moduan,

³ Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 192. artikulua, eta Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legearen 85.3 artikulua.

orain arte aipatutako zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuetako langileak subrogatzea eta 2017ko plantilla organikoan lanpostu berriak lan-kontratadun mugagabe ez-finkoenak izatea.

Gure gomendioak:

- *Aurrekontuaren likidazio-espeditentea eta Kontu Orokorra legez ezarritako epeetan onestea.*
- *Haur Eskolak erakunde autonomoaren kontratazioan kontrola indartzea, garaiz kanpoko luzapen justifikatu gabeak saihesteko, bai eta zerbitzuen prestazioari legezko estaldura emanen lioketen lizitazio berrien izapidetzea ere.*

IV.5. BARNE-KONTROLA

Kontu-hartzailetzaren barne-kontrolari dagokionez, exekuzio-oinarriek Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean eta gainerako xedapen indardunetan ezarritakora jotzen dute. Tokiko aurrekontu- eta ogasun-esparruak eginkizun hirukoitza ezartzen du: kontu-hartzailearena, finantza-kontrolarena eta eraginkortasunaren kontrolarena.

Udalaren barne kontrola soilik kontu-hartzailetzaren eginkizunaren bitartez egiten da, aldez aurreko fiskalizazio mugatuaren bitartez, exekuzio-oinarrietan ezarritako moduan. Udalean ez da kontrol finantzariorik eta eraginkortasunaren kontrolik egiten. Erakunde autonomoen kasuan, ez da eraginkortasunaren kontrolik egiten.

Gomendatzen dugu Kontu-hartzailetzak Udalean eta erakunde autonomoetan kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola egin dezala, bai eta udalean kontrol finantzarioa ere, tokiko aurrekontu-esparrua betez.

IV.6. UDALEKO LANGILE-GASTUAK

Langile-gastuak 76,25 milioi eurokoak izan ziren 2016an. Ekitaldi horretan aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 41 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 98,3 da.

2015eko ekitaldiarekin alderatuta, oro har aitortutako betebeharrek adierazgarria ez den portzentaje batean egin dute gora, ezertan kendu gabe artikuluen mailan egin diren aldaketa aipagarrienak; hona xehetasunak:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2015)	Aitortutako betebeharrak (2016)	Aldea	2016/2015 aldea (%)
Hautetsien lansariak	896.982	936.155	39.173	4,37
Behin-behineko langileen ordainsariak	908.557	1.725.620	817.063	89,93
Funtzionarioen ordainsariak	40.241.067	40.148.547	-92.520	-0,23
Langile lan-kontratadun finkoen ordainsariak	699.713	677.645	-22.068	-3,15
Aldi baterako lan-kontratadunen ordainsariak	2.582.063	2.369.509	-212.554	-8,23
Gizarte Segurantzza (1)	9.278.133	9.509.506	231.373	2,49
Pentsioak:	20.781.127	20.723.427	-57.700	-0,28
Bestelako gizarte gastuak.	862.221	761.683	-100.538	-11,66
Langileria-gastuak, guztira	76.249.863	76.852.092	602.229	0,79

(1) Gizarte Segurantzza osasun laguntzarengatik gastuak jaso dira, biak ere 160. aurrekontu-kontzeptuaren barruan.

Nabarmentzekoa da behin-behineko langileen ordainsarrietan egindako gastuak izan duen igotzea, ehuneko 89,93koa; horren arrazoi nagusia da 2016an langileen gastua egotzi dela betetzen

duten lanpostuaren arabera, eta ez pertsona bakoitzak jabetzan duen lanpostuaren arabera⁴; horrekin, aurrez egiten zen aurrekontu-sailkapena zuzendu da.

Bestalde, aurreko ekitaldietako familia-laguntzaren gastua langile funtzionarioen partida propioei egozten zitzaien. 2016ko ekitaldian, 16. artikuluan egozten da, gastu sozial gisa. Alderaketa egiteko, aurreko ekitaldian egindako egozpena birsailkatu da.

Honako hauek dira plantilla organikoaren datuak:

Langileen sailkapena

Sailkapena	Plantilla
Behin-behineko langileak	39
Lan araubidea	44
Funtzionario araubidea	1.346
Guztira	1.429

Plantillaren egoera

Egoera	Plantillako datuak
Langile finkoak	691
Lanpostu huts erreserbadunak	101
Hutsak	598
Izendapen askea	39
Guztira	1.429

Aurreko taulari buruz, esan behar dugu lanpostu hutsak plantillako guztizkoaren ehuneko 42 direla.

Hurrengo taulan jaso dugu plantillako lanpostuak nola dauden banatuta Udaleko zuzendaritzen artean:

Udalaren alorra	Lanpostu kopurua	Guztizkoaren gainean (%)
Herritarren Segurtasuna eta Udaltzaingoa	470	33
Kultura, Hizkuntza Politika, Hezkuntza eta Kirola	205	14
Hiri Bizigarria eta Hiri Kontserbazioa	170	12
Gizarte Ekintza eta Komunitate Garapena	172	12
Hiri Ekologia eta Mugikortasuna	93	7
Tokiko Ekonomia Jasangarria eta Ogasuna	84	6
Gobernu Gardena	71	5
Tokiko Ekonomia Jasangarria eta Giza Baliabideak	63	4
Hiri Bizigarria eta Hirigintza	48	3
Herritarren Segurtasuna	36	3
Herritarren Partaidetza, Berdintasuna eta Gizarte Ahalduntzea	17	1
Guztira	1.429	100

Ikus daitekeen bezala, lanpostuen ehuneko 33 Udaltzaingoarenak dira; ehuneko 14 Kultura, Hizkuntza Politika, Hezkuntza eta Kirola alorrekoak; ehuneko 12 Hiri Bizigarriaren, Hiri Kontserbazioaren, eta Gizarte Ekintzaren eta Komunitate Garapenaren alorretakoak; gainerako zuzendaritzetako lanpostuak ehuneko zazpi edo gutxiago dira.

Egin den azterketatik honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Udalak plantilla organikoa 2016ko otsailaren 4an onetsi zuen behin betiko, eta 2016ko martxoaren 3an argitaratu zen NAOn. Hala eta guztiz ere, Tokiko Gobernu Batzarrak ekitaldian zehar plantillaren bost aldaketa onetsi ditu, baina ez dira NAOn argitaratu.

⁴ Idazkari teknikoaren izendapena funtzionarioen beraien artean egiten da.

- 2016ko abenduan, enplegu eskaintza publikoa argitaratu zen 17 lanpostutarako; horietatik bederatzi udaltzaingoko agenteenak eta gainerako alorretakoak ziren. Azterketa lana amaitzeko egunean, soilik udaltzaingoko lanpostuetako oposizioetarako deialdia egin da.

- 2016ko ekitaldian zehar, jasota dago 24 deialdi egin direla langileak kontratatzeko; horiek guztiak Udalean sortzen diren beharrianak estaltzeko langileen zerrendak egiteko izan ziren.

- Guztira, 837 kontratu egin dira, honako xehetasun hauekin:

Kontratu-mota	Lanaldi osoa	Lanaldi partziala	Guztira
Administraria, behin-behineko lan-kontratuduna	297	20	317
Behin-behineko lan-kontratudunak	6	1	7
Obra edo zerbitzua	36	231	267
Lan berezietarako administraria	35	5	40
Iraupen labur jakin bat	140		140
Prestakuntza (lantegi-eskoletako ikasleak)	66		66
	580	257	837

- Parte-hartzearen arloko teknikarien lau lanposturen kontratazioa aztertu da. Egindako lanaren ondorioz, ondoko gorabeherak azpimarratu nahi ditugu:

a) 2016ko maiatzean deialdi bat onetsi zen, hautaprobeen bitartez hautagaien bi zerrenda osatzeko, bata prestakuntzarako eta bestea aldi baterako kontrataziorako, Udalean sortzen diren beharriaz erantzuna eman ahal izateko. Aldi baterako kontrataziorako hautapen prozesua dela eta –bi kontratu egitea ekarri du– administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu da, eta txosten hau emateko egunean administrazioarekiko auzibideko prozesuaren balizko baliogabetzeari buruzko erabakia ateratzeko dago.

b) Aurreko bi kontratazio horiez gainera, bi kontratu egin dira ohikoak ez diren lan berezietarako 68/2009 Foru Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitako kasuen babesean; biak ere zerbitzuaren beharriaz erantzun egiten dira. Beharriaz erantzun egiten diren txostenetan, ikusten dugu egin beharreko lana ez dagokiola aipatutako artikuluan aurreikusitako bakarrari ere, eta lana hobeki dagokiola lanaren metatzeari; hori dela eta, zuzenagoa izanzen zen beste kontratu-figura bat erabiltzea.

- Nominaren barne kontrola.

Ganbera honen aurreko txostenetan errepikatu den bezala, barne-kontrolak ez du nominaren gaineko kontu-hartzerik egiten.

Horri dagokionez, kontu-hartzaitzak 2016ko kontu orokorrari buruz egindako txostenak berriz ere azaltzen du lan hori ez egiteko arrazoiek lotura dutela gastua aurrekontuko poltsei ez aplikatzearekin, dokumentazio faltarekin, baliabide eta denbora eskasak izatearekin eta abarrekin.

- Klase pasiboen araubideari lotutako langileen finantzaketa.

Ganberak 2015eko ekitaldiari buruz egindako txostenean, aipatzen zen Udalak jasotako diru-laguntza gehiegizko finantzaketa bat zegoela, zeren eta ez baitzen kontuan hartzen Nafarroako Gobernuari atxikitako suhiltzaileen kidegoko langileengatik Udalak jasotzen duen diru-sarreraren zenbatekoa.

2016ko ekitaldiko finantzaketaren justifikazioak bi alde dauzka aurreko ekitaldietako sistemarekin alderatuta:

a) Alde batetik, zenbateko gisa jotzen da Udalak zenbatzen duen 789.652 euroko kopuru bat deskontatzen delako, eta kopuru hori Udalak zenbatzen du langileak Gobernuari atxikitzea aplikatzearen ondorioz, lehen aipatu bezala. Horrek esan nahi zuen 2016an, aurreko sisteman ez bezala, Ganbera honen txostenetan agerian jarritako finantzaketaren gehiegizko kopurua, Iruñeko Udalak jasotzen duen diru-laguntzari dagokiona, zuzenduko zela.

b) Bestetik, aurreko eragin finantzarioa konpentsatzeko, montepioaren urteko kostuaren balorazio bat egiten da, termino ekonomikoetan, horretarako kontuan hartuz pentsioengatik prestazioak eta pentsioen kudeaketaren ondoriozko zuzeneko eta zeharkako kostuen zenbatespenetik

heldutako igoera. Horri dagokionez, uste dugu Udaleko klase pasiboen urteko kostu garbia lortzen dela pentsioengatiko prestazioen gastu soila kontuan hartuz.

Egiaztatu dugu Nafarroako Gobernuak 6.877.367,20 euro likidatu dituela. Magnitude hori kalkulatzeko, alde bakarretik kalkulatu da udal suhiltzaileengatiko arestian aipatutako ekarpena, Foru Komunitateko Administrazioan zerbitzu berezietan egoteari dagokiona. Udala Foru Administrazioari errekerimendua egiteko zeukan eskubideaz baliatu da, 2016ko defiziterako diru-laguntza zela eta.

Horri dagokionez, eta ekitaldiaren ondorengo egitate gisa, oroitidazkian aipatzen da Nafarroako Gobernuaren jakinarazpen bat jaso dela, zeinean eskatzen baita Iruñeko Udalaren montepio propioaren ustezko gehiegizko finantzaketak, aurreko ekitaldietan sortutakoak, itzultzeko.

- Sozietate publikoetan langileak kontratatzekeo prozedura.

Langileak kontratatzekeo prozesuaren lagin bat hartu da, Animsa eta Pamplona Centro Historiko sozietate publikoetako lau langile hartuta. Berrikusitako kontratazioen emaitza zuzena da, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioen arabera egin baitira.

- Haur Eskolak erakundeko langileak.

Erakunde autonomo honen langileen lau nominekin osatutako lagin bat aztertu dugu. Egindako azterketatik ondorioztatzen da, oro har, ordaindutako ordainsariak aritutako lanposturako ezarritakoak direla, eta egindako atxikipenak egokiak direla eta zuzen kontabilizatuta daudela. Halere, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

a) Gradua eta antzintasuna igotzekeo aitortpena ez da berariazko ebazpen batez egiten. Familia laguntza egoera berean dago.

b) Haur eskoletako langileek eskola-jantokietan mantenurako eskubidea dute. Mantenu hori gauzatzen da nominan deskontu bat eginez egindako otordu bakoitzekeo. Ez dugu jasota ikusi hori aurreikusten duen erabaki edo araua, ez prozedurari, ez zenbatekoari dagokienez. Ez dago, ezta ere, prozedura normalizaturik hilabete bakoitzekeo egindako bazkarien kopurua kontrolatzeko.

Gure gomendioak:

- *Plantillaren aldaketak izapidetzea toki esparruan aurreikusita dagoen prozedurari jarraituz.*
- *Plantillako lanpostu hutsak aztertzea, eta lege- eta aurrekontu-xedapenek horretarako bidea ematen dutenean, langileen kontratu egonkorren bidez artatzea Udalaren egiturazkoak diren eta izaera finkoa duten jarduera eta zerbitzuak.*
- *Kontratazio administratibora jotzea ohikoak ez diren lan berezien kasuetan soilik 68/2009 Foru Dekretuan aurreikusitako baldintzak eta xedeak gertatzen direnean.*
- *Behar diren ebazpenak onestea pertsona baten egoeran edozein aldaketa onesteko (gradua, antzintasuna eta abar), baldin eta lansari-kontzeptuetan aldaketak badakartzate.*
- *Haur Eskolak erakundeko langileen mantenurako esparrua arautzea, kasua bada gaurkotuz langileak otordu-zerbitzuaren kostu errealerako ordaintzen duen zenbatekoa.*

IV.7. UDALAREN ONDASUN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTU ARRUNTAK

2016an Udalaren ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak 66,08 milioi eurokoak izan ziren. 2016an aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 35 egiten dute. Betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 92koa izan da, eta ehuneko zazpi egin zuten gora 2015arekin alderatuta.

Ondasunetan eta zerbitzuetan egindako gastuak, milioi batetik gorakoak, honakoak izan ziren 2016an:

Kontzeptua	Betebeharrak 2015	Betebeharrak 2016	Aldea	% Aldea
Mugikortasuna, trafikoa eta MUGAren kudeaketarako kontratua	7.465.941	7.482.891	16.950	0,2
Bide publikoaren garbiketarako kont. Osasungarritasun publikoa	7.928.534	7.996.888	68.354	0,9
Berdegunek, mantentzea eta erabiltzen diren ondasunen konponketa	3.917.037	4.015.557	98.520	2,5
Informatika eta zerbitzu informatikoen mandatu berria *		2.977.125	2.977.125	
Kultur azpiegiturak, jardueren kudeaketa	2.963.460	2.928.177	-35.283	-1,2
Argiteria publikoaren kontsumoa	2.783.900	2.776.161	-7.739	-0,3
Ikastetxe publikoak, garbiketa zerbitzuak	2.015.081	2.044.302	29.221	1,5
Pertsonen arreta ematea, jardueren kudeaketa	2.926.836	2.963.256	36.420	1,2
Argiteria publikoaren kontratua	1.451.719	1.449.445	-2.274	-0,2
Kirol instalazioak, jardueren kudeaketa	1.498.289	1.325.487	-172.802	-11,5
Kulturaren zabalkundea	1.092.882	1.214.008	121.126	11,1
Udaltzaingoa, ibilgailuak erretiratzeko kontratua	1.169.721	1.169.721	0	0,0
Bide publikoa, mantentzea eta erabiltzen diren ondasunen konponketa	1.139.465	1.135.337	-4.128	-0,4
Sanferminetako jaiak	1.007.877	1.060.101	52.224	5,2
Higiene zerbitzuen kont. Osasungarritasun publikoa	1.017.610	1.009.240	-8.370	-0,8

* Informatikaren eta zerbitzu informatikoen mandatu berrien partidak agertzen duen aldearen arrazoia da 2016ko ekitaldian 2. kapituluari jasota dagoela aurrekontuetan, aurreko ekitaldian ez bezala, haietan 4. kapituluari partidari ematen baitzitzaizkien.

Gastuen honako partiden lagin bat fiskalizatu da:

Aurrekontuko partidak	2016ko betebeharrak
Berdegunek, mantentzea eta erabiltzen diren ondasunen konponketa	4.015.557
Pertsonen arreta ematea	2.963.256
Argiteria publikoaren kontsumoa.	2.776.161
Argiteria publikoaren kontratua	1.449.445
Mugikortasuna eta semaforoaren mantentzerako kontratua	617.781

Gure azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, orokorrean, fiskalizatutako laginean, gastuak justifikatuta, onetsita, kontu-hartzailtzak onartuta (aldez aurreko kontu-hartzailtza mugatua), egoki kontabilizatuta eta, oro har, 30 egunetik beherako epe batean ordainduta daudela. Gainera, orokorrean, prozedurak ezarri eta aplikatu dira kontrolatze aldera zerbitzuak baldintza-orrietan ezarritako estipulazioen arabera betetzen eta justifikatzen direla.

Aurrekoaz gainera, Ganbera honek bere txostenetan behin eta berriz adierazi izan du eduki ekonomikoa duten egintza batzuetan, aldez aurretiko kontu-hartzailtzak aurrekontu-kreditua egoteaz, gastua partidaren arabera izateaz edo organo eskudunak onartuta egoteaz harantzagoko jarduketak egin dituela. Hala eta guztiz ere, gehitutako jarduketa horiek ez daude determinatuta eta ez dira ageri fiskalizatutako espedientean edo dokumentuan.

Dena den, honako gorabehera hauek aipatu behar ditugu:

- Bost kontratuetatik, berdeguneei dagokiena 2016ko ekitaldi osoan fakturatu da isilbidezko luzapenaren figura erabiliz; figura hori, ordea, ez dago jasota kontratazio publikoaren esparruan, eta aukera eman dio Udalari aurreko adjudikazio-hartzaileari zerbitzua ematen jarrai zezala exigitzeko behin kontratuaren legezko indarraldia amaituta, zerbitzua berriz ere esleitu bitartean. Gure lana amaitzeko egunean, ez dago jasota espediente berririk lizitatu denik berdeguneeen mantentze-zerbitzuetarako.

- Aurreko zerbitzuengatiko ordainketa egin izan da ordainketetarako zerrenda arruntetan sarzteaz beste izapidetik egin gabe. Kontratua amaituta ematen jarraitzen diren zerbitzuengatiko ordainketen izapidetzeak suposatuko luke aberaste bidegabea edo arrazoirik gabeko aberastea debekatzen duen printzipiora jotzea; horrenbestez, jurisprudentziaren doktrinak ezarri duen bezala, Administrazio Publikoa hirugarrenak egindako lanengatiko kalte-ordaina ematera behartuta dago. Printzipio horren aplikazioak berekin ekarri beharko luke berariazko espediente bat izapidetzea, eta hartan oinarrituz administrazio publikoek beren betebeharra eta ordainketa aitortzea; halako espedienterik, ordea, ez da egin fakturatutako zerbitzuetan.

Halaber, 2016an egindako esleipen hauek berrikusi ditugu, bai eta urte horretan haiei dagokien gastu-exekuzioa ere:

Zenbakia	Kontzeptua	Prozedura	Lizitatuak kopurua	Lizitazio- prezioa, BEZik gabe	Esleipen-prezioa, BEZik gabe
1	Iruñeko kale garbiketa	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik goiti			
	1. lotea		4	7.817.955	Errekurtsoa aurkeztutako kontratua
	2. lotea		1	617.283	617.271
	3. lotea		1	145.931	Esleitu gabe
2	Turismoko plan estrategikoa	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	12	74.380	52.067
3	Laguntza kontratua, Mintzakide programa	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	1	11.000	11.000
4	Iruñeko gazteei zuzendutako as-teburuetako aisia-programa	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	2	33.057	27.322
5	Iruñeko Udalaren Plangintza Estrategikoaren bulegoaren identifikazioa eta jarrera, Europar Batasunaren programen finantzaketa-aukerak direla eta.	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	5	30.000	26.500
6	Alde zaharreko mugikortasunari buruzko parte-hartze prozesua	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	5	25.570	22.450
7	Autobus geltoki zaharreko txarteldegien eta tabernaren eremua zaharberritzeko proiektuaren errezioa eta obra-zuzendaritza	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	4	20.000	14.816
8	Gerra zibilean eta garai frankistan giza eskubideak urratzeari buruzko peritu-txostena	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	1	12.366	12.366
9	Euskararen erabilerearen neurketa	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	1	10.563	10.563
10	Paisaiaren kalitateari eta ahultasunari buruzko azterlana	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	3	8.264	7.024
11	Hizkuntza zerbitzuen kontratazioa	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	1	12.000	12.000
12	Familiatan esku hartzeko zerbitzuen kudeaketa, genero-arazoak dituzten eta zailtasun sozialetan dauden emakumeen eta haien seme-alaben arreta integralaren esparruan.	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	1	411.576	411.576
13	Familiatan esku hartzeko zerbitzuen kudeaketa, hurrei sustapena, arreta eta babesa emateko jardueraren esparruan.	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	1	923.538	923.538

Egin dugun azterketatik, honako gorabehera hauek azpimarratu behar ditugu espedienteen kudeaketa dela eta.

- Aurreko garbiketa-kontratua 2015eko abenduaren 31n amaitu zen, eta ordurako esleipen berriak ebatzita egon behar zuen. 2016eko martxoan, zerbitzuaren lizitazio berria onetsi zen. Isilbidezko luzapen baten bidez luzatu da 2016eko irailaren 30era arte aurreko esleipen-hartzaileak zerbitzua ematea; izan ere, data horretarako aurreikusita zegoen esleipen-hartzaile berria zerbitzua ematen hasia. 1. lotea esleitu da, baina Kontratuen Auzitegian errekurtsioa aurkeztu da; 3. lotea eman gabe deklaratu da. 2016an, bi zerbitzu horiek aurreko enpresa esleipen-hartzaileak ematen jarraitu ditu, beste isilbidezko luzapen baten bidez. Lana amaitzeko datan, bi loteak behin betiko esleitu dira.

- Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez izapidetutako hamar kontratuetan, honako gorabehera hauek aurkitu ditugu:

a) Bi kontratuetan kontratazio-organoak esleipenerako aurreikusitako gehieneko epea geratu da.

b) Kontratu batean konturako ordainketak egin dira inguruabar horiek klausulen pleguan aurrekusi gabe eta alde aurretik bermea gordailatu gabe. Kontratuei buruzko 6/2006 Foru Legearen 113. artikuluan ezarritakoa urratzea da hori. Hala eta guztiz ere, kontratua bete da kontratuko aurreikuspenetan ezarritakoaren arabera.

c) Kontratu batean, aurreikuspen falta bat egon da kontratuaren exekuzioa denbora errealean planifikatzerakoan; beste batean, aurreikuspen falta egon da erabiltzaileen demanda efektiboan, eta horri konponbidea eman behar izan zaio aldaketa ez-konbentzional baten bidez, zerbitzuaren kostua beherantz doitzeko beharizan errealean arabera.

d) Kultura, Hizkuntza Politika, Hezkuntza eta Kirola Alorrak kudeatutako hiru kontratuak – taulako 3., 6. eta 11. zenbakiko kontratuak– aurreko ekitaldietan diru-laguntzaren gisara kalifikatuta zeuden jarduketei dagozkie. Hiru espedienteetatik, beren xedea dela eta, uste dugu okerra dela kontratu gisa sailkatzea Mintzakide programari dagokiona; izan ere, diru-laguntza izateari eutsi behar zitzaion.

Kontratu horietan kontratuei buruzko araudiaren ez-betetzeak jarri dira agerian, honako haue-tan gauzatuak: esleipen-hartzailearen hautapenean lehia sustatu ez izatea; izapidetze-datetan inkoherentziak gertatzea; bi espedientetan kontratua falta izatea eta kontratu baten BEZaren ordainarazte bidegabea. Geroko egitate gisa, aipatu behar dugu taulako 11. kontratua 2017ko exekuzio-oinarrietan diru-laguntza izendun gisa ageri dela.

e) “Alde zaharreko mugikortasunari buruzko parte-hartze prozesu”rako laguntza kontratua esleitu egin zitzaion aurrez parte-hartze prozesuaren definizioa eta diseinua xede zuen zerbitzua – 6.267 euro– fakturatua zuen enpresa berari. Gure ustez, Kontratuei buruzko 6/2006 Foru Legearen 20.3 artikuluan aurreikusitako bateraezintasun kasu bat izan daiteke hori, artikulua horrek ezartzen baitu ezin izan direla lizitazio prozesuetara aurkeztu kontratuen zehaztapan teknikoak erabakitzen esku hartu duten enpresak.

Adierazi beharra dago, bestalde, Nafarroako Administrazio Auzitegiak baietsi egin zuela enpresa lizitatzailerik gabeko aukeratzeko errekurtsioa, prozeduratik baztertu izatearen aurkakoa; izan ere, azkenean zerbitzuaren esleipen-hartzaile suertatu zen enpresak baino eskaintza hobea aurkeztua zuen. Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpena 2017an berretsi da, administrazio-arekiko auzibidean.

Gomendioak:

- *Osoko Bilkurak erabakitzea, kudeaketa prozesuan daukaten garrantziari erreparatuta, zein alderdi egiaztatu behar diren eduki ekonomikoa duten ekintzen, dokumentuen edo espedienteen alde aurretiko kontu-hartzailetza egiterakoan.*

- *Kontratuen indarraldia dela-eta 6/2006 Foru Legean ezarritako gehienekoa errespetatzea, eta kontratuen plangintza egokia ezartzea, egungo araudi-esparruan aurrekusi gabeko luzapenak saihesteko.*

- *Kontratu-euskarririk gabeko betebeharrak hartu beharreko kasuetan, betearazpenaren oinarrietan izapidetzerako prozedura egokia ezartzea, aberaste bidegabearen teoriaren arabera, organo eskudunak onets dezan.*
- *Exekuzio-epaek zorrotzago planifikatu eta aurreikustea, bai eta kontratu-aldaketak ekar ditzaketen funtsezko alderdiak ere.*
- *Kontratueta konturako aurrerakinak saihestea, klausula administratibo partikularren pleuetan aurreikusi ez direnean.*
- *Kontratuak egitea zerbitzu-esleipen guztietan.*

IV.8. INBERTSIOAK

Udalak 2016an egindako inbertsioek 13,83 milioi euro egin zuten. Zenbateko hori Udalak ekitaldian egindako gastu guztien ehuneko 7,3 da. Betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 76koa izan zen, eta gastua 2015ekoa baino ehuneko 17 handiagoa izan zen.

Obra- eta hornidura-kontratuen honako esleipen hauek fiskalizatu dira:

Kontzeptua	Prozedura	Lizitazio-tzaile kopurua	Lizitazio-prezioa, BEZik gabe	Esleipen-prezioa, BEZik gabe	Esleipeneko baja (%)
Trinitarioen parkearen-Trenbidearen parke tematikoaren hegoaldeko itxierako urbanizazioa	Negoziatua, Europar 3atasunean publikizitate-rik egin gabea	6	341.288	288.354	16
1. eta 2. Zabalguneak eta Santa María la Real auzoetan hobekuntza-jarduketak egitea	Negoziatua, Europar 3atasunean publikizitate-rik egin gabea	2	304.482	273.425	10
Etxabakoitz, Donibane, Ermitagaña eta Mendebaldea auzoetan hobekuntza-jarduketak egitea	Negoziatua, Europar 3atasunean publikizitate-rik egin gabea	3	297.574	246.480	17
Sanduzelai, Buztintxuri, Txantrea, Arrotxapea eta Alde Zaharra auzoetan hobekuntza-jarduketak egitea	Negoziatua, Europar 3atasunean publikizitate-rik egin gabea	2	296.195	222.146	25
Mendillorri auzoan hobekuntza-jarduketak egitea	Negoziatua, Europar 3atasunean publikizitate-rik egin gabea	7	231.055	184.867	20
Herritarren segurtasunaren bulegoen erreforma egitea	Negoziatua, Europar 3atasunean publikizitate-rik egin gabea	2	102.387	92.148	10
Udaltzaingorako sei furgoi alokatzea	rekia, European publikizitatea eginda	3	322.314	259.482	19
Udaltzaingorako motozikletak hornitzea	Negoziatua, Europar 3atasunean publikizitate-rik egin gabea	5	39.669	39.443	1
Kale-garbigailu eta makina baldeatzaile autopopulatsuen hornidura	rekia, European publikizitatea eginda				
1. lotea		5	160.000	144.000	10
2. lotea		7	288.000	235.000	18
3. lotea		6	212.000	199.600	6
4. lotea		1	125.000	124.600	0
Lore-parterreetarako landareen hornidura, lorategietako udal zerbitzurako	rekia, European publikizitatea eginda				
1. lotea: udaberriko eta udako landarea		3	33.554	23.791	29
2. lotea: udazkeneko eta neguko landarea		3	28.129	21.870	22
Udako programaziorako azpiegituren	Negoziatua, Europar				

Kontzeptua	Prozedura	Lizitazio- tzaile kopurua	Lizitazio- prezioa, BE- Zik gabe	Esleipen- prezioa, BEZik gabe	Esleipen- neko baja (%)
hornidura	3atasunean publizitate- rik egin gabea				
1. lotea: agertokiak, aulkiak, hesiak eta material osagarriak		3	11.570	Esleitu gabe	-
2. lotea: soinua eta argiteria Ziudadelako programaziorako		3	9.917	8.800	11
3. lotea: agertokiak eta aulkiak Ziudadelako programaziorako		3	4.132	4.132	0
4. lotea: soinu- eta argi- ekipamenduak		3	2.892	2.789	4

Oro har, kontratuen lizitazioak eta haien esleipenak, bai eta kontratuen exekuzioak ere, kontratu-legediari jarraituz izapidetu dira eta gastuak onetsita, kontu-hartzaitzak baimenduta (aurreko kontu-hartzaitza mugatua), justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude; halere, aipatu behar dugu kasu batzuetan hornitzaileei ordaintzeko epeak gainditu egin duela kontratazio publikoari buruzko araudian ezarritako 30 eguneko epea.

Egindako azterketatik, halere, honako gabezi hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Obra-kontratuetan, oro har, ez da errespetatu izan esleipenaren eraginkortasuna eteteko epea, Kontratuari buruzko 6/2006 Foru Legearen 93. artikuluan ezarritakoa. Nolanahi ere, ez da esleipenaren aurkako alegaziorik aurkeztu.

- Trenbidearen parkea-Trinitarioak izeneko kontratua dela-eta esleipen-prezioaren gaineko ehuneko 7,14ko aldaketa egin zen, eta haren oinarria izan zen obra-unitate berriak sartu zirela, beren kontraesanezko prezioekin, eta unitateen neurriak uste baino handiagoak izan zirela. Harrera-aktatik ondorioztatzen da hiru hilabeteko atzerapena egon dela kontratuaren exekuzioan. Espedientean ez dira jaso atzerapenaren arrazoiak. Halaber, akta horretan, jasota utzi zen kontratastak egin gabeko lan batzuk badaudela. Lana amaitzeko datan, ez dago jasota lan horiek zein egoeratan dauden.

- Auzoen hobekuntzarako jarduketak publizitaterik gabeko lau prozeduraren bitartez izapidetu dira. Prozedura horien bitartezko izapidetzean lehia lortu izana ezertan kendu gabe –aurretik Kontratazio Atarian iragarkia jarri delako eta gonbitak bidali direlako–, uste dugu egokiagoa izanen zela Europar Batasuneko atalasetik behehitiko prozedura ireki batera jotzea, egin beharrekoa lau lotetan zatituta.

- Obra espediente guztietan azpikontratatentzako ordainketak egiaztatzeari buruzko klausula bat jasotzen da. Udalak azpikontratazioaren baldintzak betetzen direla zaintzeko betebeharra duenez kontratua exekutatzeko den fasean, ahalmen horretaz baliatu beharko zuen, are gehiago hiru azpikontratatisten erreklamazioak egin direnean, enpresa esleipen-hartzaileak ordainketak ez egiteagatik, herritarren segurtasunerako bulegoen erreformarako kontratuan.

Gure gomendioak:

- *Behar diren neurriak hartzea kontratazio publikoari buruzko araudian hornitzaileei ordaintzeko ezarritako epeak betetzeko.*

- *Esleipenaren eraginkortasuna eteteko epea, kontratuaren esparruan aurreikusitakoa, errespetatzea.*

- *Esleipenerako prozeduren hautapena egokitzea kontratazio publikoaren esparruan aurreikusitakoetara.*

- *Arauen esparrua gainditzeko arren, Udalak, behar diren kontrol eta egiaztapenen bitartez, bere burua betetzera behartzen dituen klausulak betetzea.*

IV.9. TRANSFERENTZIA-GASTUAK

2016an, Udalak 23,86 milioi euro egiten duten transferentziak eta diru-laguntzak eman zituen. Honakoak izan ziren onuradunak:

	Arruntak		Kapitalekoak	
	Aitortutako betebeharra	Aldea (%) 2016/2015	Aitortutako betebeharra	Aldea (%) 2016/2015
Erakunde autonomoak	9.343.598	10	771.918	672
Udal sozietateak*	2.550.410	-31	-	-100
Foru Komunitatea	350.661	149	-	-
Mankomunitatea	2.171.956	-2	-	-
Enpresa pribatuak	72.774	-14	-	-
Familiak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak	6.497.175	2	956.015	-61
Kanpoko aldeetan	1.071.092	-	80.000	-
Guztira	22.057.666	-5	1.807.933	-49

Taula honetako informaziotik, honako hau zehaztu beharra dago, nolana ere:

a) Udal sozietateetan transferentzia arrunten zein kapitaleko transferentzien exekuzio txikiagoak arrazoi bat du: Animsari egindako enkarguen aurrekontuetan egindako aldaketa; izan ere, 2016ko ekitaldian, gastu arrunten eta inbertsioen 2. eta 6. kapituluetan jaso baitzen haien aurrekontua, hurrenez hurren.

b) Kanporako transferentziak, 2016an islatzen direnak, aldaketa bat dakarte kodetzean, 2015ekoarekin alderatuta. 2015ean, familien eta irabazi asmorik gabeko erakundeen artikuluan jaso zen haien aurrekontua.

Transferentziek eta diru-laguntza arruntek 22,05 milioi euro egin zuten. 2016ko ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 12 dira. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 95 da.

Aurreko urtearen aldean, ehuneko bost jaitsi ziren, nagusiki Animsa sozietate publikoari egindako enkarguen aurrekontuetan egindako aldaketaren ondorioz, aurrez aipatu bezala.

Transferentziak eta kapitaleko diru-laguntzak 1,80 milioi eurokoak izan ziren; horrek Udalaren 2016ko gastu guztien ehuneko bat egiten du. Haien betetze-mailak behin betiko kredituen ehuneko 50 egin zuen. 2015ean emandakoak baino ehuneko 49 gutxiago izan ziren, funtsean etxebizitzak zaharberitzeko familientzako eta erakundeentzako diru-laguntzak ehuneko 61 jaitsi zirelako, eta Animsaren aurrekontua ehuneko 100 aldatu zelako.

Transferentzia eta diru-laguntza arrunten eta kapitalekoen honako lagin hau fiskalizatu dugu:

Transferentzia arruntak	Onuradunen kopurua	Aitortutako betebeharrak
Udal sozietateei egindako transferentzia		
Asimec SARI egindako transferentzia	1	2.080.001
Norgehiagoka araubidea		
Desgaitasunaren/mendetasunaren eta gizarteratzearen arloetan 2016an gizarzte ekintzako proiektu berariazkoak garatzen dituzten irabazi asmorik gabeko entitateentzako diru-laguntzen deialdia.	49	290.000
Herritarren parte-hartzerako diru-laguntzak	119	445.581
2016an kultura- eta arte-proiektuak egiteko diru-laguntzak	33	400.400
Banakako ebaluazioaren araubidea		
Banakako ebaluazioaren araubideko deialdia, ikastetxeetan 2016an elikadurarako prestazio ekonomikoak emateko. Urtarrila-ekaina aldia	35*	299.927
Banakako ebaluazioaren araubideko diru-laguntzen deialdia, 2015-16 ikasturtearen 2. eta 3. hiruhilekoetan eta 2016-17 ikasturtearen 1. lauhilekoan eskola-orduz kanpoko jarduerak egiteko**.	84	107.220
Exekuzio-oinarrien 8. eranskinean aurreikusitako diru-laguntza izendunak		
Elikagai Bankua/Bankuaren jardueratik heldutako gastuen finantzaketa	1	40.000
Nafarroako Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Koordinakundea/Informazio eginkizuna eta GKE-en jardueren koordinazioa finantzatzea	1	30.400

* 35 ikastetxeri dagozkie. Azken onuradunak ikasleak dira.

** Lagina soilik 2015-16 ikasturtearen 2. eta 3. hiruhilekoetan hartu dira, eta 41 entitateri dagozkie. Gainerako 43ak 2016-17 ikasturtearen 1. lauhilekokoak dira.

Kapital transferentziak	Aitortutako betebeharrak
Haur eskolak	215.000
Hirigintza Gerentzia	556.918

Oro har, emandako eta ordaindutako transferentzia eta diru-laguntza guztiak onetsita, fiskalizatuta eta egoki kontabilizatuta daude, kasuko akordioen edo deialdien arabera.

Aurrekoa gorabehera, egindako fiskalizaziotik honako gai hauek nabarmendu behar ditugu:

- Haur Eskolak erakunde autonomoari egindako kapital-transferentziek aurreikusitako inbertsio guztiak finantzatzen dituzte ekitaldi bakoitzean. Inbertsioen exekuzioa txikiagoa den neurrian, gerakin bat sortzen da, eta gerakin hori erakunde autonomoaren finantzen egoera-orrietan islatzen da. 2016ko ekitaldiaren amaieran, inbertsioei atxikitako baliabideengatik gerakin bat ageri da, guztizko gerakinaren ehuneko 37 egiten duena. Gure ustez, etorkizuneko aurrekontuetan atxikitako gerakin hori erabili ahalko litzateke etorkizuneko inbertsioak finantzatzeko, hartara Udalaren urteroko finantzaketa gutxituz.

Gomendatzen dugu urtero berrikustea Haur Eskolak erakundearentzako kapital-transferentziak, aipatutako erakunde autonomoaren diruzaintzako gerakina aplikatuz finantza daitezkeen inbertsio guztiak direla-eta Udalak ematen duen finantzaketa doitzeko.

IV.10. TRIBUTUAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

Tributuengatik, prezio publikoengatik eta bestelako diru-sarrerengatik 2016an aitortutako eskubideek 96,4 milioi euro egin zuten behera. Kopuru hori Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 46 da. Honako hauei dagozkie:

(euroak, milioitan)

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		Betetakoa (%)	2016/15 aldea (%)
	2015	2016		
Zuzeneko zergak	52,7	55,7	108	6
Zeharkako zergak	5,1	8,0	148	57
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	28,4	28,7	108	1

Zergak udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 32 dute, eta honakoei dagozkie:

Kontzeptua	Zenbatekoa diru-sarrera guztien gainean (%)	Aldea % 2016/15
Zuzeneko zergak		
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	28.142.873	13,93
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	8.843.217	4,38
Zirkulazio zerga	9.449.060	4,68
Lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	8.546.519	4,23
Bingo-sarien gaineko zerga	764.640	0,38
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	24.589	0,01
Zeharkako zergak		
EIOZa	8.046.537	3,98

Zenbateko handieneko aitortutako eskubideak hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioari dagozkio. 28,14 milioi euro dira, eta 2015arekin alderatuta ehuneko 0,9ko igoera dago. Hiri-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren tasa 2015ean 0,3775 izatetik 2016an 0,3801 izatera igo da.

Garrantziaren arabera hurrenkeran, ondok honako hauek datoz: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 9,45 milioi; jarduera ekonomikoen gaineko zerga, 8,84 milioi, eta lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga, 8,56 milioi.

Bereziki aipagarria da lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergak ehuneko 51ko igoera izan duela 2015ekoarekin alderatuta –termino absolutuetan, 2,9 milioi euro dira– eta eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zeharkako zergaren ehuneko 60ko igoera –8,04 milioi, 3,02 milioi euroko aldearekin, zenbaki absolutuetan, 2015eko 5,02 milioi euroko kopuruaren aldean–.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,3801	
Landa-lurren kontribuzioa	0,8000	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,32 eta 1,40 bitarte	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	18	8-20
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2-5
Luxuzko gastuen gaineko zerga	8	10, gehienez
Etxebizitza hutsen gaineko zerga	0,151	0,04-0,2

Iruñeko udalerrian, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko 12/2006 Foru Legean jasotakoetatik zenbait inguruabar gertatzen dira, ponentzia berri bat onetsi ahal izateko; izan ere, azken berrikuspenetik hemezortzi urte iragan dira eta aldaketak gertatu dira lurraren erabilera- eta aprobetxamendu-baldintzetan, Ganbera honek behin eta berriz gomendatu izan duen bezala.

20/2005 Foru Legearen xedapen iragankor bakarra aplikatuta, Udalak ez duenez balorazio ponentzia gaurkotu, ez da egokitu Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritako lurraren kontribuzio zerga-tasa bakarrera; izan ere, jarraitzen du oraindik ere landa izaerako ondasunei eta hiri-ondasunei tasa berezituak aplikatzen.

2016ko ekitaldian, balorazio ponentzia partzial bat onetsi da, hura udal planaren zehaztapenei egokitzeko. Azken hirigintza-garapenetan eraikitako 9.010 etxebizitzatan du eragina. Ponentzia horren diru-bilketaren eragina 2017ko ekitalditik aurrera baizik ez da ikusiko.

Diru-sarrereren hurrengo partiden lagin bat hartu dugu:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak (%)	2016/2015 aldea (%)
Lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	8.546.519	92	51
ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAI-NEKO ZERGA	8.046.537	89	60
Hirigintza-lizentziak	804.467	89	37
Zerbitzu publikoetako enpresen aprobetxamendu bereziak	2.768.178	99	-9
Udalaren kirol instalazioak eta lokalak	699.029	99	-6
Itzulketak	124.591	96	-36

Egindako lanean egiaztatu dugu ezen, orokorrean, haien likidazioa eta diru-bilketa ordenatzen eta arau erregulatzaileren arabera egin direla.

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergako plusbalioen tributazioari buruz Konstituzio Auzitegiak emandako epaiaren ondorioz, Udalak 2017ko ekitaldian erabaki du likidazioak bertan behera uztea, Nafarroan zergaren araubidea aldatzen eta legediari egokitzen ez den bitartean.

2016an egindako ikuskapen jarduerak 580.249 euroko diru-sarrerak ekarri dizkiote Udalari; horietatik, ehuneko 77 EIOZari dagozkio.

Larrialdi sozialeko laguntzei buruzko 2015eko txostenean –2017ko maiatzean argitaratu zen– Ganbera honek eskatu zuen laguntzen berrikuspenari dagokionez, txosten hau idazteko egunean jasota daukagu ukitutako laguntzak Nafarroako Gobernuo langileekin batera aztertzen ari direla, dagozkien itzulketak-espeditenteak izapidetu ahal izateko.

Gomendatzen dugu balorazio-ponentzia berri bat onestea, katastro-balioak aldatuko dituen, lehendik daudenak aldera.

IV.11. TRANSFERENTZIEN BIDEZKO ETA ONDAREAREN BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak 99,70 eta 2,72 milioi euro egin zuten hurrenez hurren, eta diru-sarrera guztien ehuneko 51 dira.

Aurreko urtearekiko alderaketa-datuek honako alde hauek erakusten dituzte:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2016/2015
	2015	2016	
Transferentzia arruntak	96.974.508	97.523.726	1
Kapital-transferentziak	414.611	2.183.604	427

Ehuneko 427ko igoeraren arrazoia da Europar Batasunaren transferentzia-eskubide gehiago aitortu direla.

2016an milioi bat eurotik gorako zenbatekoengatik jasotako transferentziak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	Aitortutako diru-sarrerak, 2016	Transferentzien bidezko diru-sarreraren guztizkoaren gaineko ehunekoa	Aurrekontuko diru-sarreraren guztizkoaren gaineko ehunekoa
Nafarroako Zerga Ogasuneko zergetako parte-hartzea	56.414.584	58	28
Hiriburutza agiria	23.845.898	24	12
Eskubide pasiboen finantzaketarako ekarpena	6.877.367	7	3
Oinarrizko gizarte-zerbitzuarentzako diru-laguntza	3.650.679	4	2
Haur Eskolak erakundearen diru-laguntza	1.485.427	2	1
Nafarroako Gobernua: gizarte enplegua	1.415.180	1	1

Udalaren ondare bidezko diru-sarrerak, 2016an, 2,86 milioikoak izan dira, eta diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko 1,4 egin dute. Diru-sarrera horien osaera eta aurreko ekitaldiarekiko izan duten bilakaera honako hauek izan dira:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak		Aldea (%)
	2015	2016	2016/2015
Banketxeetako kontuen korrituak	64.038	62.801	-2
Dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak	70.918	64.367	-9
Hiri finken eta lokalen errentamendua	495.623	669.084	35
Emakidak eta kanonak	1.628.867	2.065.761	27
Guztira	2.259.446	2.862.013	27

Berrikuspena honako diru-sarrerak hauek direla-eta egin da:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak (2016)	Kobrantzak 2016	Kobrantzak (%)
Emakidak eta kanonak	2.065.761	1.454.571	70
Hiri finken eta lokalen errentamendua	669.084	621.478	93

Egindako egiaztapenetatik ondoriozta dezakegu ezen, oro har, eskubide eta kobrantzak egoki justifikatuta eta kontabilizatuta daudela.

IV.12. INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA

Udalaren 2016ko diru-sarrerak, inbertsioen besterentzetik heldu direnak, 6,81 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako diru-sarrearen guztizkoaren ehuneko 3,4 egiten dute. Gehienak lursailen salmenta-eragiketei dagozkie, eta gainerakoak, nagusiki, indibisoak desegitetik heldutako eskubideei dagozkie.

Lursailen salmenta-eragiketen barruan, bi jarduketa badaude oroitidazkian kontingentzia gisa jasota daudenak eta kasuko erosketa-salmenta eragiketei dagozkienak:

Lur-zatia	Zertarakoa	Prozedura	Esleipen-prezioa, BEZik gabe
ARS-3 (Arrosadia-Lezkairu) banaketa-eremuko L-30.1 lur-zatitik L-30.6 lur-zatira	Etxebizitza babestua	Zuzeneko besterentzea	3.405.323
ARS-3 Arrosadia-Lezkairu banaketa-eremuko L.53 lur-zatia	Etxebizitza babestua	Zuzeneko besterentzea	1.155.151

Eragiketa horien jatorria 2015eko ekitaldian dago, orduan onetsi baitzuen Tokiko Gobernu Bazarrek etxebizitzaren bi kooperatiben besterentzea, 35/2002 Foru Legean ezarritakoaren babesean; izan ere, foru lege horrek aukera ematen du lurzoruaren udal ondarea osatzen duten lurzatiak zuzenean besterentzeko, babes publikoko araubideren batekoak diren etxebizitzak eraikitzeari begira. 2016ko urtarrilean, salerosketa-eskiriturak egin dira.

Zuzeneko besterentze horiek direla-eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zen. Udalak berak informatu digunez, 2017ko ekitaldian, errekurtsoetako batean, ezesteko epaia eman da; bestea dela eta, berriz, ezetsi den arren, apelazio errekurtsoa aurkeztu da Auzitegi Nagusian.

IV.13. ABENDUAREN 31n EBAZTEKO DAUDEN ERREKURTSO JUDIZIALAK

Kontu Orokorraren oroitidazkiak atal bat badu, non informazioa ematen baita 300.000 eurotik gorako garrantzi unitario ekonomikoa duten eta 2016ko abenduaren 31n zeuden gorabehera buruz. Honako hauek dira datu aipagarriak:

a) Administrazioarekiko auzibidean dauden zortzi prozedura, guztira 8.454.894 euro egiten dutenak.

b) Bi konkurtso-prozedura, zeinetan konkurtsoko enpresak dauden industrialdeetako urbanizazio-kuoten hartzekoduna baita; guztizko balorazioa 1.539.631 eurokoa da.

Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2017ko abenduaren 20an

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**IRUÑEKO UDALAREN 2016ko EKITALDIARI BURUZKO FISKALIZAZIOKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENEAN JASOTAKO IRITZI SALBUESPENDUNAREN OINARRIARI BURUZKO TXOSTENA**

Iruñeko Udalaren 2016ko behin-behineko fiskalizazio txostenak, Kontuen Ganberak onetsi duenak, salbuespen bat planteatzen du: balantzean ez da erregistratu etorkizuneko betebeharren hornidura, udal montepioari atxikitako funtzionarioen pentsioei dagokiena.

Hala eta guztiz ere, 2016ko Kontu Orokorraren Oroitidazkian, 43. orrialdean, horri buruzko informazioa ematen da, eta azaltzen da zein arrazoi direla-eta ez den egokitzat jotzen hornidura hori Balantzean jasotzea.

Halaber, orain aipatzen diren gomendioei dagokienez, honako hau azaltzen da:

1.a) Kontratazioaren arloan honako gomendio hau egiten da: kontratu-euskarririk gabeko betebeharrak hartu beharreko kasuetan, betearazpenaren oinarrietan izapidetzerako prozedura egokia ezartzea, aberaste bidegabearen teoriaren arabera, organo eskudunak onetsi dezan. Bada, horri buruz, jotzen dugu prozedura hori jada artikulatuta dagoela, zeren eta zerbitzuen eta laguntza teknikoaren emakidarako kontratu-erako pleguen eruedetan (Europako atalasetik goiti zein beheiti), Tokiko Gobernu Batzarrak onetsitakoetan, hirugarren klausulan arautzen baita ezen isilbidezko luzapena gertatzen bada Udalak ahalmena duela jatorrizko kontratua luzatzeko kontratu berriaren exekuzioa hasten ez den bitartean, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe.

Hartara, jotzen da Udalak zerbitzu bati eusten diola, haren prestazioarekin jarraitzea interes publikokoa delako, eta hori egiten duela luzatutako lizitazioetik atera den prezioan; horrek, gainera, segurtasun juridiko bat ematen die alde kontratatzaileei, prestazioak ordaintzeko prezioaren zenbatekoari dagokionez. Klausula hori zuzenbidearen arabera dela jo da Administrazioarekiko Auzietako 3. epaitegiaren 2015eko urtarrilaren 16ko 16/2015 epaian, eta apelazioan berretsi da hori 2016ko azaroaren 23ko 495/2016 epaiaren bitartez.

2.a) Balorazio ponentzia gaurkotzeko gomendioari dagokionez, informatzen da 2018ko udal aurrekontuen proposamenean aurrekontu-kontsignazio bat jaso dela, ponentziak eskatzen duen alde aurretiko merkatu-azterlana egiteko, bai eta ponentzia hori egiteko aurreneko lanak egiteko ere.

3.a) Haur Eskolak erakunde autonomoaren kontratazioa indartzeari dagokionez, garaiz kanpoko luzapenak eta zerbitzu-prestazioei lege-estaldura emanen dieten lizitazio berrien izapidetzea saihesteko, esaten den bezala, egiazki kontratu batzuk badaude 2012ko ekitalditik indarraldia amaituta eduki dutenak; halere, orain egoera hori berrikusi da, zenbait lizitazio egin dira eta Haur Eskolak erakundeko langileria indartu da; izan ere, kontu-hartzaile delegatu bat izendatu da eta, gainera, zuzenbidean lizentziatua den langile batek arduraldi luzeagoa eskainiko dio.

4.a) Udal montepioaren ustezko gehiegizko finantzaketari dagokionez, Udalak administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkeztu du, zeren eta ez baitago ados Kontuen Ganberaren irizpidearekin; izan ere, jotzen da organo fiskalizatzaile horren irizpidea ez dela zuzena, ez baitu kontuan hartzen Iruñeak kostu bat baduela suhiltzaileen eta salbamenduko langileen zerbitzuko funtzionarioen pentsioengatik eta funtzionario horiekin dauzkan betebeharretatik heldu diren beste gastu batzuegatik; izan ere, langile horiek 1991tik Udalari zerbitzu ematen ez badiote ere, erretiroa hartzen dutenean haien pentsioa udal montepioak ordaintzen du, nahiz eta Nafarroako Gobernuak ordaindu beharko lukeen, une horretako enplegatzailea baita.

Iruñean, 2017ko abenduaren 19an

Gerardo Hurtado Jáuregui, Iruñeko Udaleko Tokiko Ekonomia Jasangarria-Ogasuna, Gi-zarte Ekonomia, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa alorreko zuzendaria

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN-
DAKO ERANTZUNA**

Eskerrak eman nahi dizkiogu Iruñeko Udalari aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen. Halere, Ganbera honek honako alderdiak aipatu nahi ditu:

1. Kontratazioaren arloko gomendioari dagokionez, Udalak zerbitzuen kontratazioaren plangintza egokia egin beharra dauka, kontratuek beren gehieneko indarraldia gaindi ez dezaten. Kontratu baterako aurreikusita dauden gehieneko luzapenak amaitu direnez, azkenduta dago kontratu hori. Egoera hori bideratzen duen klausula bat sartzea ezin da Udalaren ahalmen bat izan, aukera ematen duena Kontratuei buruzko 6/2006 Foru Legean oro har ezarritako gehieneko epeak gainditzeko, guztiz apartekoak diren egoera batzuetan izan ezik.
2. Bigarren eta hirugarren alegazioei dagokionez, berresten dugu garrantzitsua eta urgentziazkoa dela Udalak ahal bezain laster esandakoak praktikan jartzea.
3. Bukatzeko, aipatu beharra dago ezen, udal montepioaren finantzaketa-sistemari dagokionez, berretsi egiten ditugula txostenaren ondorioak, Nafarroako Gobernuari atxikita dauden Udaleko suhiltzaileen kidegoko langileek dakarten kostu garbiaren kalkuluari dagokionez.

Iruñean, 2017ko abenduaren 20an

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

